

PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	SEGURTASUNA ETA ARRISKUEN PREBENTZIOA BILTEGIAN (ZEHARKAKOA)	Iraupena	30
		Berariazkoa	
Kodea	UF0928		
Lanbide-arloa	Merkataritza eta Marketina.		
Lanbide-eremua	Merkataritza-logistika eta garraioaren kudeaketa		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Biltegien antolamendua eta kudeaketa	Maila	3
Prestakuntza-modulua	Biltegien antolamendua.	Iraupena	140
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Biltegiaren diseinua eta antolamendua.	Iraupena	80
	Biltegiko lantaldearen kudeaketa.		30

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator LB1 lanbide-burutzapenarekin, arriskuak prebenitzeari dagokionez, baita LB5 lanbide-burutzapenarekin ere.

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

- A1: Biltegi barruko hainbat operazioen salgaiak erabili edo mugitzean ohikoenak diren istripu eta arriskuak identifikatzea.
- EI1.1 Biltegiak sor daitezkeen gertakari eta istripu ohikoenak deskribatzea.
 - EI1.2 Salgaiak manipulatzeko eta eskorga jasotzaileen bidez mugitzean istripua gertatuz gero hartu beharreko neurriak, baita lanpostuen ergonomia ere.
 - EI1.3 Biltegi istripua gertatuz gero jarraitu beharreko prozedura orokorra deskribatzea.
 - EI1.4 Biltegiko jardueren eta mugimenduen ondorioz sor daitezkeen karga fisiko eta mentalak deskribatzea.
 - EI1.5 Biltegi bateko manipulazio-lanetan, eskaerak prestatzeko lanetan eta barruko mugimenduetan parte hartzen duten aldagaiak behar bezala zehaztu ondoren:
 - Lan-jardueren arrisku-faktore nagusiak eta arrisku kolektiboen kontrol-neurriak zuzen identifikatzea.
 - Lan-ingurunean sute txikiak sortuz gero egokiak diren segurtasun-neurriak eta beharrezko babes-baliabideak deskribatzea.
- A2: Biltegiaren arriskuak eta istripuak prebenitzeko neurriak aplikatzea, indarrean dauden araudi eta gomendioak kontuan hartuta.
- EI2.1 Biltegiko arriskuak prebenitzeko plan bat egiteko beharra azaltzea, kontuan hartuta aplikatu beharreko araudia, aurreikusitako lanaren plangintza eta biltegiko jarduerak.
 - EI2.2 Biltegiko arrisku-eta istripu-elementuak identifikatzea.
 - EI2.3 Segurtasun-plan baten jarraipen- eta kontrol-prozedurak deskribatzea, istripuak gertatzen direnerako alternatibak zehaztuz.
 - EI2.4 Jokabide seguruak eta lan- eta babes-ekipoen erabilera zuzena sustatzea, eta prebentzio-jardueren garapenean langileen interesa eta kooperazioa sustatzea modu integratuan.
 - EI2.5 Oinarrizko prebentzio-jarduerak sustatzea: ordena, garbitasuna, seinaleztapena eta mantentze-lan orokorrak.

Edukiak

1. Biltegiko segurtasuna

- Kontzeptua eta definizioa: segurtasuna eta segurtasun-teknikak biltegiaren.
- Prebentzio-segurtasuna.
- Norbera babestea eta babes kolektiboa: Babesa materialen fluxu logistikoan.
- Biltegiko lan-istripuak.
 - Istripu-motak eta arrazoi ohikoenak.
 - Lan-eremuaren arabera istripu espezifikoak: kamioien zamalanak, salgaiak atera eta estibatzea, APQ salgaiak maneiatzea eta beste arrisku espezifiko batzuk.
- Biltegiaren diseinua eta laneko segurtasuna.
 - Biltegiaren diseinuari dagozkion prebentzio-neurriak (seinaleztapena, korridoreen diseinua, suteen kontrako elementuak, apalategien diseinua).
 - Salgai arriskutsuen eta beste salgai batzuen arloan indarrean den legedia.

2. Biltegiko arriskuen ebaluazioa eta prebentzioa

- Arrisku-faktoreak: fisikoak eta mentalak.
 - Arrisku-faktoreen identifikazioa.
 - Biltegiko prozesuak eta horiei lotutako arrisku-faktoreak.

- Lan-eremuaren araberako arrisku espezifikokoak: kamioien zamalanak, salgaiak atera eta estibatzea, APQ salgaiak maneiatzea eta beste arrisku espezifiko batzuk.
- Arriskuen ebaluazioa eta kontrola.
 - Biltegiko segurtasunaren lege-alderdiak.
 - Espainian eta European laneko arriskuak prebenitzeko indarrean den araudia.
 - Prebentzio-arloko erantzukizuna. UNE arauak.

3. Arriskuak prebenitzeko neurri eta gomendioen aplikazioa biltegian

- Segurtasun operatiboa biltegian.
 - Jardunbide egokiak antolamenduan.
 - Ekipoak eta segurtasuna eskorgen alorrean (argiaren eta akustikaren alorreko segurtasun-elementuak, flotaren homogeneotasuna, argibideen eskuliburua).
- Biltegiari aplikatutako ergonomia eta psikologia:
 - Lanpostuaren diseinua.
 - Karga fisikoa eta mentala.
 - Estresa eta beste arazo fisiko eta psikologiko batzuk.
- Segurtasuna eta motibazioa lanean.
- Jardunbide egokiak manipulazio-material eta -elementuak maneiatzean.
- APQ produktuak eta hondakin toxiko eta arriskutsuak:
 - Istripu-motak, loturiko arriskuak eta tratamendu espezifikokoak.
 - Arau espezifikokoak.
- Biltegiko lan-istripu eta larrialdietarako jardunbideak:
 - Arau eta jarduteko prozedura orokor eta espezifikokoak, istripu-motaren arabera.
 - Lehen laguntza.

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Batxilergoko titulua izatea.
- 3. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Goi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo goi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana.
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatara sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Biltegien antolamendua eta kudeaketa.